

7- FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideen bitartez, balorezko proposamena garatu, bezeroengana iritsi bezeroekiko harremana mantendu eta, azkenik, diru sarrerak lortu ahal izango ditu gure enpresak. Gure proiektua funtziona dezan, zenbait baliabide erabiliko ditugu: fisikoak, intelektualak, giza- eta finantza-baliabideak.

Baliabide fisikoak

- 75 m² lokala, Bilbo erdian kokatuta eta bertan egongo da gure egoitza.
- Gure proiektuan parte hartu nahi duten irakasleekin baita gure bezeroekin ere harremanetan egoteko zenbait ordenagailu. Honekin batera, gure enpresa ondo funtzionatzeko beste teknologia-gailuak (inprimagailuak, fax-ak eta router-a)
- Gure egoitzan egoteko altzariak.

Intelektualak

- Gure aplikazioaren marka patentatu Europako Patenteen eta Marken erregistroan.
- Gure teknologia gailuen softwarea eta hardwarea.
- Bezeroak lortu ahal izateko, mantentzeko eta komunikazio-erlazioak haiei buruz mantentzeko merkataritza-trebetasunak.

Finantza-baliabideak

- 25.000€-ko hasierako inbertsioa, estatutuetan adierazi dugun moduan, bakoitzak 5.000€.
- 30 urteko adingabeei Gaztenpresaren diru-laguntza posiblea negoziatzea abiarazteko.
- Negozioa abiarazteko orduan sinesten dituzten gastu nagusiei aurre egin ahal izateko gure bankuaren mailegua. (15.000€)

Giza-baliabideak

→ **Izaskun:**

Izaskun gure aplikazioaren diseinuaz arduratuko da. Honi esker, gure bezeroen harremana ezin hobea izango da. Hilero, gure aplikazioaren berrikuntza egongo da diseinua aldatuz gure bezeroen gustura.

→ **Laura:**

Laura gure aplikazioaren mantenamenduaz arduratuko da. Edozein arazoa egotekotan bera arduratuko da lehenbailehen konpontzeaz, gure bezeroekin harremanetan jarri orduan eragozpenik ez egoteko.

→ **Mirari:**

Mirarik gure proiektuaren publizitatea egingo du. Horrela, gure aplikazioaren beharra duten jendea eta haiei lagundu ahal dietela ohartuko dira. Honetaz baliatuz bezero potentzial gehiago lortuko ahalko dugu.

→ **Ane eta Aitziber:**

Gure proiektuan parte hartu nahi duten irakasleei elkarrizketak egingo dizkiete. Elkarrizketetan fitxategi bat egingo diete, bai lan mailan bai psikologikoki (gure proiektuan lan egien ahal duten jakiteko).

